


BERRIAK BERRI

Anoetako
aldizkari informatiboa
75 zenb.
2021eko azaroa



**GAU BELTZA: KALABAZA ETA KANDELEN GAUA
USADIO ZAHARRAK BERRESKURATUZ**

EUSKARAREN PILULA

BERA EZ DA BERDIN

BERA ez da BERDIN hitzarekin nahasi behar.

Bera: gauza bakarra da, baina behin baino gehiagotan errepikatzen da:

*“Irakasle bera daukagu biok”
(irakasle bera bientzat).*

Berdin: elkarren antza duten bi gauza edo gehiago.

“Zure jantzia eta nirea oso antzekoak dira, berdinak dira” (jantzi bana).

OHIKO AKATSAK:

(* Asteriskoa duten esaldiak gaizki daude)

1. Auto **berdinean** joan gara elkarrekin bilerara.*
3. Bi udal horiek idazkari **berdina** dute.*
4. Eraikin **berdinean** daude kultur teknikariaren bulegoa eta liburutegia.*
5. Mikelek eta Ainhoak kamiseta **bera** daukate.*
6. Aurten, egun **berdinean** hartuko ditugu oporrak*

HONELA HOBETO:

1. Auto **berean** joan gara elkarrekin bilerara.
3. Bi udal horiek idazkari **bera** dute.
4. Eraikin **berean** daude kultur teknikariaren bulegoa eta liburutegia
5. Mikelek eta Ainhoak kamiseta **berdina** daukate.
6. Aurten, egun **berean** hartuko ditugu oporrak.

BIZTANLEAK

	EMAKUMEAK	GIZONEZKOAK	GUZTIRA
BIZTANLEAK (urriaren 25ean)	1.005	1.066	2.071
JAIOITZAK (ekainaren 30etik urriaren 25era)	Inge Irati	Suhar Yasser Alex Eydan Lander Damir Arai	
HERIOTZAK (ekainaren 30etik urriaren 25era)	Isabel M ^a Victoria M ^a Luz		

IRATXULO

***Xanduli manduli kirrikiri,
eman gaztainak guri!***

Uzta garaiazen amaiera, neguaren hasiera. Urtaro aldaketa, hotzen hasiera. Lurraren, ama-lurra, inguruan sortutako antzinako jaia, horixe da Gau Beltza. Eguna mozteak iluntasuna gailentzea dakar. Jakina da iluna heriotzaren eta beldurraren adierazle gisa ulertu izan dela. Eguna moztuagatik ere, festarako gogo eta grinak bizirik izan ditugu beti euskaldunok.

Udazkena urtaro goxoa da bere hozpilean. Hai-zeak astinduta eroritako hosto gorritz jantzitako paisaia. Mendira irten eta gaztaina bete zaku itzultzea. Gero, etxeko sutondo epelaren bueltan kontakizunak kontatzea. Etxekoen irri eta algarez gozatzeko unea inolaz ere. Kontu eta pasadizoek zendutako arbasoak gogoratzea dakar. Oroimena. Haien espiritua ere multzora gonbidatzea. Omenaldia.

Herriaren jakintzak izpirituak zinez beldurgarriak direla esan izan digun arren, dagoeneko arimak esnatu ditugu. Zer egin orain? Datoren urtera arte, gutxienez, uxatzea komeni da, badaezpada. Baina ohildu nola? Harrapatuz? Haiek beldurtuz?

Izutzea izango da onena. Etxeko trapu zaharrak hartu, baratzetik kuiak ostu ondoren hustu eta ilunari aurre egiteko kandelak piztu!

Arimak ikaratu ondoren, sabela betetzeko gaztainak irabazita!

Antzinako arbasoen jaia birsortu eta euskaraz bizi nahi dugulako, itzalitako kandelak piztu nahi izan ditugu...

LIBURUTEGIA



ANOETAKO UDAL LIBURUTEGIA

liburutegi@anoeta.eus

943543897

ORDUTEGIA

Astelehenetik
ostegunera
16:30-19:30

Ostiraletan
11:00-13:30

IPUIN TXOKOA

Miriam Mendoza kontalariarekin

LIBURUTEGIKO
KATALOGOA
<https://labur.eus/MHOUB>

Urriaren 14an izan genuen lehenengo saioa 3 eta 5 urteko haurrekin. Bertan kontatutako ipuinak mailegagarri dituzue liburutegian. Saio guztiak ostegunetan arratsaldeko 18:00etan izango dira eta aldez aurretik izena eman behar da.

Hurrengo saioak:

Azaroak 4, LH1-2

Azaroak 25, HH

Abenduak 16, LH1-2



UDAZKENA LIBURUTEGIAN INTERESGUNEAK



Bi interesgune prestatu ditugu egungo gaien inguruko liburuekin. Bata, Afganistango gatazkaren harira, herrialde honi buruz ditugun saiakera eta eleberriekin osatuta. Bestea, berriz, urriaren 24an Liburutegien Nazioarteko Eguna izan zela eta, liburutegi, liburu eta irakurketari buruzko eleberri eta album ilustratuekin.



Afganistan ezagutuz

Liburutegien Nazioarteko eguna

GOMENDIOAK

Gazteentzat:

- Jara (bilduma) / Jasone Osoro
- El campamento / Blue Jeans
- Kalte gabeko jokoak / Ricardo Gómez

Helduentzat:

- La anomalía / Hervé Le Tellier
- Adiskide paregabea / Elena Ferrante
- Nola gorde errautsa kolkotan / Miren Agur Meabe

Komikiak:

- Biga / Romain Pujol eta Vincent Caut
- Lila Trotamundos / Teresa Radice eta Stefano Turconi
- Kortsarioen ostatua / Dani Fano eta Guillermo Gonzalez
- Crónicas de juventud / Guy Delisle

Haurrentzat:

- Zer behar da? / Gianni Rodari
- Katta (bilduma) / Miren Agur Meabe
- Euskal Herriko animaliak / Asier Gorostidi eta Igor Sarralde



Marie Desbons

INGURUMENA

Herri baratzak: lursail gehiago prestatuko dira

Azken urtean gora egin du herri-baratzak erabiltzeko eskaerak. Gaur egun 35 lur-sail daude eta guztiek erabiltzailea badutenez, itxaron zerrenda dago. Horregatik, urte hasierarako eremua handitu eta lur-sail berriak egitea erabaki dugu.

Herri-baratzetakoa autokontsumorako baratze zaintza ekologikoan aritzeko gunea da. Hainbat helburu ditu gunek: aisialdi aktiboa bultzatzea, landa eremuaren eta herritarren arteko lotura indartzea, janari osasuntsuak eskura izateko aukera-berdintasuna bultzatzea, tokiko produktuekiko sentsibilitatea garatzea, herritarren arteko harremanak indartzea, herritarren

eta lurraren arteko harremanak sustatzea... Helburu guzti hauek lortu ahal izateko urtean zehar ikastaroak eta zerbitzu ezberdinak eskatzen dira eta, gainera, Gipuzkoako beste baratze gunek batzuekin esperientziak konpartitu ahal izateko Kutxa Ekogunearen Baratze Parke Sareko kide ere bagara.

Beraz, gunek dituen helburuek duten garrantzia ikusirik eta herritarrek erabiltzeko gogoz daudela ikusi dugunez, gunea handitu eta herritar gehiagori aukera ematea erabaki dugu. Izena eman nahi duenak ingurumena@anoeta.eus edo 943651200[6] bitartez egin dezake.



GAZTERIA

“Oraindik ikasten ari gara bai suspertzaileak, bai herritarrak; baina gustura nago egindakoarekin”

Azaroko azken egunarekin batera amaituko du Iratxe Olano Lopetedik gazteria-suspertzaile lana. 2019an hartu zuen Anoetako Udaleko Gazteria sailaren gidaritza eta herriko gazteen beharrak hautematen zein horiei erantzuten aritu da. Bi urte hauetan zein esperientzia izan duen eta zer ikasi duen kontatu du:

Nola laburtuko zenuke dinamizatzaile izan zaren tarteak?

Zapore gazi-gozoarekin nago hainbat arrazoi direla-eta: batetik, Haur Hezkuntza ikasi dut eta udalekuetan eta koxkorragoekin lan egin dut, baina behin ere ez 10-16 urtekoekin; eta aldea dago. Bestetik, joan den martxoan ireki behar genuen eta orduantxe etorri zen Covid-19a. Horrek nolabait gure ilusioa zapuztu zuen eta lan administratiboa egitea tokatu zitzaidan, nerabeekin aurrez aurrekorako ilusioa nuenean. Tarte horretan nerabeentzat zer eta nola egin pentsatzeak buruhauste asko sortu zizkidan; baina bueno, hortik ere ateratzen gara, zorionez.

Zer du hobetzeko Gazteria sailak?

Hasi besterik ez gara egin, beraz, zerrenda luzea du hobetzeko. Gauza berria denez, oraindik ikasten ari gara, bai suspertzaileak, bai herritarrak; baina gustura nago orain arte egindakoarekin.

Eta zeintzuk dira indar-guneak?

Gaztelekua da indar-guneetako bat. Interesa sortzen du, nobedadea baita, eta jendea oso aktibo dago. Egun berezietako eskaintzan (Aste Santua, uda eta gabonak) DBHko nerabeentzako ere eskaintza dago – lehen LHkoentzat bakarrik zegoen–.



Aurten LHko ikasleentzako eskulan eta sukaldaritza-tailerrak antolatu ditugu. Aukera dute gauza berriak lantzeko, ez aisia bakarrik, baita ikasiz esperimintatzeko ere; betiko eskaintzetatik ateratzen den zerbait da.

Aurrera begira?

Epe motzean, abenduan Gaztelekua itxita egongo da, baina ikastaroek aurrera jarraituko dute eta gabonetako ekintzak ere mantenduko dira. Urtarrilean zabalduko dute berriro. Epe luzerako, berriz, helburuak dira, batetik, Gaztelekua herriko eragile aktibo izatea; eta bestetik, Gazteria sailak gazteei zein gurasoei aholkularitza ematea, eta hezkuntza-komunitatea indartzea.

KULTURA

INDUSKETAK BASAGAINGO BURDIN AROKO HERRIXKAN

Urtero bezala, aurten ere Basagaingo Burdin Aroko herrixkan indusketa lanak egiten aritu ziren 20 boluntario inguru irailaren 1etik 21era, Aranzadi Zientzia Elkarte-ko Xabier Peñalver arkeologoaren zuzendaritzapean.

Ibarra, Irura eta Anoetako ikastoletatik ohiko bisita gidatuak egin zituzten, eta irailaren 11n ere bisita irekia egin zen.

Iazko azaroan dibulgaziorako liburu bat kaleratu zuten Aranzadiko kideek Basagain Burdin Aroko herrixkaren

inguruko argazki eta azalpen askorekin, eta Anoetan aurkeztu zuten.

Aurtengo abendurako Gipuzkoako Foru Aldundiaren babespean beste argitalpen bat kaleratzea aurreikus-ten dute, zehatzagoa eta 300 marrazki, plano eta irudi baino gehiago dituen.

Indusketa lanen proiektuak ekartzen duen gastua 10.420 eurokoa da, eta Gipuzkoako Foru Aldundiak %100 finantzatu du aurten.



IPUIN KONTAKETA ETA ESKULANAK

Mestiza Elkartek eskainita, eta Tolosaldea Gara-zeneko Migrazioaniztasun Sailak finantzatuta, ipuin kontaketa berezia izan zen urriaren 21ean liburutegian, kontaketa eta eskulanak uztartuz.

LH3 eta LH4ko haurrek primeran pasa zuten saioan, eta gainera oparitxo polita eraman zuten etxera.



XABOI NATURALEN TAILERRA

Irailaren 25ean xaboi naturalak egiten ikasteko tailerra antolatu zuen Udalak Bidatz Sasiainen eskutik: etxeko olio erabilia birziklatzeko aukera ederra, ekonomia zirkularraren eredua sustatuz, eta ingurumenaren alde eginez. Tailer praktikoa izan zen, eta gustura aritu ziren partaideak. Bertan eginiko xaboiak etxera eraman zituzten gero.



PAREKIDETASUNA

LOLITA CHAVEZ "BABESLEAK" IPUINAREN AURKEZPENEAN

Lolita Chavez Guatemalako ekintzaile ekofeministarekin solasaldi interesgarria izan genuen Anoetan urriaren 19an. Guatemalatik alde egin behar izan zuen 2017an heriotz mehatxuak jasozteagatik, eta momentuz ezin du bueltatu.

Natura eta Lurraren eskubideak babesten dituzten Abya Yalako emakume ekintzaileen aldeko bere borroka kontatu zuen, eta maya indigenen kosmobisioaren zertzelada batzuk eman ere.

Bere bisita Anoetan kokatzen "Babesleak" ipuin ilustratua aurkezteko kanpainaren baitan. Liburu hau Crowdfunding kanpaina baten bidez finantzatu da, jendearen diru ekarpenekin, eta helburua da bihotzak astintzea eta jendea sensibilizatzea munduan gertatzen ari diren giza eskubideen urraketekin, begia jarrita batez ere lurra eta natura babestearen alde bere bizitza mehatxupean duten emakumeengan. Horregatik, liburuaren salmentarekin lortutako dirua erabiliko da emakume hauei, bizirik jarraitu ahal izateko beren herrialdea utzi behar izan dutenei, ekonomikoki laguntzeko.

Adin guztientzako ipuin ilustratua da "Babesleak". Irakurterraza, esaldi motzak, sakonak eta mamitsuak, irudi alai eta koloretsuekin uztartuta. Ale pare bat liburutegian daude mailagarri: euskaraz eta gaztelaniaz.



INDARKERIA MATXISTAREN AURKAKO UDAL PROTOKOLOAREN BIDEOA

Indarkeria matxista, tamalez, errotuta dago gure gizartean. Horri aurre egiteko udal protokoloaren triptikoak banatu genituen udaberrian herriko etxe guztietan. Orain azaroan, eta 25ean Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Eguna izanik, protokoloari buruzko bideo laburra zabaldu genuen. Bertan indarkeria matxistaren jatorria, ezaugarriak eta horri aurre egiteko dauden baliabideen informazioa ematen da modu sinple eta erakargarrian, ikus-entzunezko formatuan.

HILEROKORAKO PRODUKTU JASANGARRIEN INGURUKO KANPAINA

Emakumeen hilerokoan erabiltzen diren hainbat produktuk (bereziki, konpresa eta tanpoiek) emakumeen gorputzetan, ekonomian eta ingurunean duten inpaktuaz hausnartu nahi dugu eta hauek saihesteko egon daitezkeen alternatibak sustatu.

Hortaz, laster udalak kanpaina bat jarriko du martxan produktu jasangarriagoen inguruan, eta tailerrak antolatuko ditu kopa menstruala erabiltzen ikasteko, eta beste produktu alternatiboen inguruko informazioa emateko.

Erne ibili eta parte hartu!

EUSKARA



MintzaPoza praktikatu, Mintzalagunen parte hartu

Herritar guztiak gonbidatu nahi ditugu ariketan parte hartzera; bai euskara praktikatu nahi dutenak eta baita euskara praktikatu nahi duten horiei laguntzeko prest daudenak ere.

Zer da Mintzalaguna

Euskaraz hitz egiten duten pertsonak euskaraz egin nahi dutenekin elkartzea astean behin, ordu betez, paseoan, kafetegian, parkean... euskaraz aritzeko, euskaraz bizitzeko.

Bi modutara parte har daiteke, euskara praktikatu (**bidelaria**) eta euskara praktikatzeko lagunduz (**bidelaguna**).

Izena nola eman

Izen ematea doakoa da. Mintzalaguneari parte hartu nahi dutenak udaletxera jo behar dute izena ematera: euskara zerbitzua, euskara@anoeta.eus, 943651200/4

LABURRAK



PLAZA BERRITUTA

Plazako obren lehen fasea amaituta, gune dotore gelditu da, anoetarren gozamenerako. Bi eremuen arteko irisgarritasuna bermatzen du plaza berriak eta komun publikoak ere berritu dira, genero ikuspegia kontuan hartuta. Estalkia datorren urtean egitea aurreikusten du Udalak.

PROZESU PARTEHARTZAILEAK

Udalak prozesu partehartzaileak jarriko ditu martxan epe laburrean: batetik, herriko hainbat auzoetako egokitzapenari buruz, irisgarritasuna bermatze aldera, eta bestetik, Lasarbe erreka eta Ikastolaren arteko lursailen egin nahi den aisialdi guneari buruz.

MIGRAZIORAKO EUSKAL ITUN SOZIALA

Urriaren 28ko udalbatzak aho batez onartu zuen Migraziorako Euskal Itun Soziala, Eusko Jaurilaritzak sustatutako dokumentua. "Jaso nahiko genukeena eskaintzea" da testuaren izena, eta 10 konpromiso jasotzen ditu migrazio-erronkei modu positiboan erantzuteko eta xenofobiaren demagogia populistari aurre egiteko.



ORDENANTZA FISKALAK

Urriaren 28ko udalbatzak aho batez onartu zituen 2022ko ordenantza fiskalak, %1,5eko igoerarekin.

LOATZO



Udazkeneko jarduerak

Urrian ospatu zen Euskal Jaian Loatzo Musika Eskolako ikasle eta irakasleak ibili ginen Anoetako txokoak musikaz alaitzen. Trikitilariak eta dultzaineroak kalejiran ibili ginen eta saxofoi eta perkusioko ikasleek agurra jo zuten dantzariekin batera.

Urriaren 31n herrian zehar antolatu zen gau beltzeko kalejiran ere parte hartu genuen gure musika tresnekin.

Xexili Egunean ere kontzertu polita eskaini genuen elizan.

Anoeta musikaren herria izan dadila!

EUSKALDUNTZE TALDEA

Anoetako Euskalduntze Taldeko ikasleak ipuin kontalari ikastolan

Urriaren amaieran, Ikastolako LHko hainbat gelatan Anoetako euskalduntze taldeko ikasleen bisita jaso zuten. Gau Beltzaren aitzakian, ikasle horiek berariaz egindako ipuina kontatu zieten Ikastolako LHko haurrei. Kontakizun horretan oinarrituta, marrazkiak ere margotu zituzten umeei.



GIZARTE ZERBITZUAK

Zabalik da Alkartasuna biltokia

Astelehenetik igandera, 17:00etatik 20:30era egongo da zabalik eta une oro jarraitu beharko da segurtasun-protokoloa.

Zabalik da Alkartasuna biltokia eta astelehenetik igandera irekita egongo da 17:00etatik 20:30era. Erabili ahal izateko segurtasun-protokoloa diseinatu dute eta une oro errespetatu beharko da.

Protokoloan aipatzen dituzten neurriak Alkartasuna biltokian antolatzen diren jarduera zein ekintza guztietan aplikatu beharko dira. Hala nola, bertaratzen direnek eta jardueretan zein ekintzetan parte hartzen duen orok bete beharko dituzte. Segurtasun-neurrien artean daude, besteak beste, musukoa erabiltzea, eskuen higiena, lokalaren higiena eta aireztatzea eta ekintzen iraupena.



Estimulazio tailerra martxan

Anoetako Udaleko Gizarte-Zerbitzuen sailak estimulazio-tailerra jarri du martxan. Tailerra 65 urtetik gorako herritarrei zuzendua dago eta astean behin (ostegunetan) Alkartasuna Biltokiko lokalean egiten dute (azaroa eta abenduan) 18:15etik 19:45era. LAHAR elkargoko Eider Aramendi Beraza anoetarrak gidatzen du ikastaroa. Arreta zein oroimena lantzeko ariketak, eskulanak eta irakurketa lantzeko ariketak egingo dituzte, besteak beste.



Harri eta herri



Aurtengoan hamalaugarrena izan du Euskal Jaiak. Lehengo urtean festa kutsurik gabe antolatzea tokatu zitzaigun, baina aurtengoan heldu genion festari ere. Aspaldiko partez, musika doinu, dantzaz eta algaraz bete zen herriko plaza. Ze ederra herria, berriro ere, elkarturik ikustea!

Euskal Jaiak sorreratik izan du euskal kultura eta tokiko elikadura eta jakintza aldarrikatzea eta plazaratzea. Aurtengoan harriaren bueltan osatu genuen egitaraua. Larunbatean harriarekin lotutako herriko ondarea ezagutzeko mendi ibilaldiak egin genituen. Herriko mugarriak, karobiak, minak, harrizko itxiturak... bisitatzeko aukera izan genuen. Iluntzean, HABI eta TOC taldeen kontzertuak izan genituen.

Ilgandean goizeko lehen ordutik nabaritzen zen herritarrok festa gogoz geundela. Goizeko 11tako plaza jendez betetzen hasi zen eta ederra izan zen azokako postuetan jendea etenik gabe

erosketak egiten ikustea. Ez dadila haria eten, urte guztian zehar ere jarraitu dezagun bertakotik eta bertakoetatik jaten eta janzen.

Tripa beteta, Pentatloia ikusteko gogoz atera ginen frontoitik. Jendea desafioa ikusteko gogoz hurbildu zen eta Zelaitarrek eta Orbe-Errazkin bikoteek ez zuten hutsik egin. Plaza berria ere ederki inauguratu genuen Ostolaza eta Txapartegik girotutako erromeriarekin. Zenbat denbora hainbeste jende dantzan ikusi gabe!

Eskerrik asko beste urte batez egun hau posible egin duzuen guztioi, aurreko hilabeteetatik lanean aritutakoei, nahiz egunean bertan aritu zinetenoi. Ez dago halako egunik antolatzerik eskuz esku lanik egin gabe eta auzolanik gabe. Datorren urtera arte!

EUSKAL JAI BATZORDEA



IKASLE KONTSEILUA,

Ikasleek parte hartzeko eta ikastolari buruz erabakitzeko gunea



Ikastolek, beste hainbat eginkizunen artean, gizarte-funtzio garrantzitsua betetzen dutela bistakoa da. Haurra gurekin egoten da ikastolan, 2 urte dituenetik 16 urteko nerabea bihurtzen den arte; elkarrekin egiten dugu bizitzako etapa luze bat, eta urte horietan guztietan zehar kontu handiz saiatzen gara gure ikasleak trebatzen, bizitzarako ezinbestekoak diren ezagutzetan, gaitasunetan eta jarreretan. Era berean, etorkizunean gizarte parte-hartzaile, parekide eta bidezkoago bat osatuko duten pertsonak edo subjektu aktiboak ditugu amets.

Norabide horretan, 2017-2018 ikasturtean, Ikasle Kontseilua jarri genuen martxan. Foro horrek ikasleen ekintzailetasuna eta parte-hartzea bultzatzea ditu helburu. DBHko ikasle ordezkariek osatzen dute taldea eta hilabetean behin elkartzen dira, gutxi gorabehera, etapako koordinatzaileekin eta pedagogia-arloko ardura-dunarekin. Bilera horietan, ikastolaren funtzionamenduari dagozkion hainbat gai lantzen dituzte, eta ikasleek beren kezkak, beharrak, zalantzak... partekatzeko aukera izaten dute.

Azken urte hauetan asko izan dira ikasleekin elkarlanean aurrera ateratako proiektuak eta gauzatutako lanak; besteak beste, jolas-ordurako nahiz talde-lanak egiteko eremuak egokitu ditugu, ikastetxe barruan nahiz kanpoan. Bestalde, ordutegiaren gaiari ere heldu diogu, eta bertan egindako lanketaren emaitza gisa, aurten aldatetarako egon dira DBH3 eta DBH4ko ordutegietan. Horrez gain, jolas-ordurako jolas alternatiboak proposatu dituzte, ikasleek baloiaz gain beste material batzuk ere eskura izan ditzaten. Ikastolara patinetek eta skate bidez etortzeko aparkaleku egoki eta seguruen eskaera ere foro honeetatik bideratu da. *Nolako ikastola amesten dugu?* Galderaren inguruan ere hausnartzen ibili dira, etorkizuneko ikastola irudikatu nahian...

Ikasleek asko dute esateko eta guri erakusteko, eta guri dagokigu horretarako bitartekoak jartzea eta denbora eskaintzea, haiekin batera pentsatzeko, hausnartzeko eta ikastola hobe baten alde ekiteko. Eta zuk nolako ikastola amesten duzu?



EUSKAL HERRIA SOZIALISTA



EAJk eta patronalak ofentsiban jarraitzen dute. Hurrengo urratsa: GREBA OROKORRA

Krisi ekonomikoak langileria gero eta gehiago kolpatzen duen bitartean, Espainiako Gobernuak eta Eusko Jaurlaritzak murrizketa gehiago egiteko asmoa dute.

Agintariak erabateko hondamenera daramate ekonomia kapitalista. Irabazi kapitalistak salbatzeko likidezia-txorrotek zor publiko izugarriarekin espekulatzea indartuz inflazioaren sekulako gorakada eragin dute. Ondorioak etxean ditugu dagoeneko: KPIa % 3,3 igo da abuztuan; prezioek gora egin dute elektrizitatean, erregaian, alokairuan, premiazko elikagaietan... Zuzenean eta egunero erasotzen ditu langileriaren bizi-baldintzak. Enpresarien mozkinak, aldiz, ikaragarri igo dira. Lehen sei hilekoan, kotizatutako enpresen ustiapen gordina 40.405 milioi euro handiagoa izan da (ia % 230 gehiago) iazko aldi berarekin alderatuta.

Bitartean, EAEn, suntsitutako enpleguaren % 38 ez da berreskuratu (16.500 lanpostu) eta hitzarmenetako soldatak gutxien igo diren erkidegoa da (EAEn % 0,77 eta Nafarroan, berriz, % 1,46).

Krisi ekonomiko sakon batean sartzen ari gara, eta kapitalistek eskaintzen duten irtenbide bakarra langileak estutzea da, etekinak handitzen jarraitu ahal izateko. Erantzuteko prestatu behar dugu, hau hasiera besterik ez baita.

Langileen borrokak ahalik eta mailarik handienera bateratu behar dira berrir, eta gure indar guztiekin batera jo. Hori da EAJ-PSOEren gobernuak eta patronala gehien beldurtzen dituenena. Greba orokorra prestatzen hasteko ordua da. 2020ko urtarrilaren 30eko greba orokorreko batzordeak berraktibatu behar dira auzo eta herri guztietan, eta langileria osoa inplikatu behar da, enpresa eta ikastetxe guztietan; lan-erreformak bertan behera uzteko; 1.200 euroko gutxienerako soldaten eta pentsioen alde;



asteko 35 orduko lanaldia, soldata-murrizketarik gabe; erretiroa, 60 urterekin; kalitatezko zerbitzu publikoak; eta enplegu duinak.

Horretarako, sindikalismo borrokalaria kapitalistekin eta haien ordezkariekin aurrez aurre jarriko direnez, kerra behar ditugu. Lanpostuak irmotasunez defendatuko dituen. Argi eta garbi azaldu behar da, enplegua eta industria defendatzeko irizpidea ezin dela izan kapitalistak lortzen duen mozkinaren ehuneko, baizik eta enpresa horrek asetzen duen premia soziala. Pribatizatu diren sektore eta zerbitzu guztien nazionalizazioa eskatu behar da, kapitalisten esku dauden banku, oligopolio eta enpresa handiak desjabetzea, kalteordainik gabe, langileen kontrolpean ekoizten jarrita eta ekonomia premia sozialen arabera planifikatuta, eta ez irabazi pribatuaren alde.

Zorionak Ane!

Ane Sanchez Goyogana anoetarra (1998/08/16) Arraun Lagunak taldeko arraunlaria da. Urteak daramatza arraunaren munduan, hainbat talderekin goi-mailan lehiatzen, baina amaitu berri den denboraldian, Euskotren Liga eta Kontxako Bandera irabazi ondoren, bere kirol-bizitzaren puntu gorenean dagoela esan genezake.



Galdera batzuei erantzuteko denbora eskaini digu. Hona hemen elkarrizketa:

1.- Ligan zehar lehia estua izan duzue lau taldeek, baina azkenean, Euskotren Ligan zuek nagusitu zarete. Espero al zenuten emaitza hori? Zuen helburu gisa finkatuta zenuten liga irabaztea, edo espero gabe etorri da?

Denboraldiaurrean, entrenatzaileek esaten zигuten trainerua oso bizkor zihoala eta punta-puntan ibiltzeko taldea ginela. Orduan, guk ez genituen gehiegi sinesten haien hitzak, baina denboraldiaurreko estropadetan oso maila ona egin genuen, eta orduan gu geu ere konturatu ginen posible zela.

Horrela, aurrean eta lehian ibiltzea zen helburua, lehenengo edo bigarren postuan, baina gozatea eta gure benetako maila ematea batez ere.

2.- Iaz, Arraun Lagunak 3. postuan mantendu zen ligan. Zergatik eman du saltoa aurten taldeak?

Iaz hirugarren postuan geratu ginen. Egia da oso entrenamendu onak egiten genituela, baina gero, estropadetan ez genuen gure ehuneko ehuna ematen. Irteera onak egiten genituen, baina gero "pott" egiten genuen.

Oso urte gogorra izan zen, eta etxean egin behar izan genituen entrenamenduak. Psikologikoki oso gogorra izan zen guretzat. Gainera, gure bi taldekidek positibo eman zuten, eta, beraz, talde osoak etxean sartuta egon behar izan zuen 20 egunez, entrenatzeko aukerarik gabe.

3.- Kontxako 1. jardunaldian, Orioren atzetik bi segundo eskasera iristea lortu zenuten,



eta 2. jardunaldian, bandera badia barruan erabaki zen. Nola bizi izan zenuen azken txanpa hori?

Oso momentu hunkigarria izan zen. Bagenekien abantaila genuela eta, beraien parean joanda ere, gu irabazle izango ginela. Psikologikoki oso lasai hartu genuen. Bagenekien, lanak ondo egin ez gero, bukaera edo itzulua hobea izango zela. Izan ere, beraiek lehenengo luzean estutu behar zuten irabazi ahal izateko.

4.- Zer suposatzen du zuretzat, modu pertsonalean, urteko bi lehiaketa handienak irabazteak?

Lortutakoa edozein arraunlariren ametsa da. Kontxa arraunaren "Olinpiada" dela esan genezake. Hamar urte daramatzat arraunean, eta amets bat da, askok lortuko ez duten amets bat. Oso zortedun sentitzen naiz. Egia da lan handia egin behar izan dudala, sakrifizio handia izan dela; gauza asko utzi behar izan ditut alde batera, baina emaitza hauekin ikusten da denak merezi izan duela.

5.- Euskotren Liga edo Kontxa. Bat aukeratu beharko bazenu, zeinekin geratuko zinateke?

Kontxarekin, dudarik gabe!! Azken bi urte haue-tan, giroa nahiko tristea izan da, jenderik eta festa-girorik egon ez delako. Azkenean hori da arraunlaria emozionatzen duena: irtetea zure familia arrapalan egotea, irabazi edo galdu. Hala ere, Kontxa aukeratuko nuke, dudarik gabe. Tristeagoa izan bada ere, Kontxa hartuko nuke.

6.- Datorren denboraldian, Tolosaldea Eus-kotren Ligan izango da. Etxera itzultzeko asmorik bai?

Ez. Ez didate deitu. Bertatik joan nintzen, ez bai-nengoen gustura. Baraiengatik pozten naiz. Ba-tzuengatik beste batzuengatik baino gehiago. Azkenean, liskarrak sortzen dira taldeetan.

Mireia anoetarra ere bertan da. Umetatik gara la-gunak eta pila bat pozten naiz beragatik.

Besterik gabe, ZORIONAK Ane. Datorren denbo-raldian bandera eta titulu gehiago irabaztea opa dizugu!!

ERREZETA

Gaztaina-krema



Osagaiak krema

- 125 g patata
- 125 g tipula
- 125 g kalabaza garbi zuritu
- 375 g gaztain erre
- litro bat salda
- olio
- gatza.

Osagaiak mahaira ateratzeko

- gaztain erreak xerratuak
- onddo salteatuak
- perrexil xehatua
- olio
- piperrautsa

Nola prestatu

Frijitu tipula txikitua. Bota gaztaina, pa-tata eta kalabaza txikituak. Salteatu. Bota salda eta gatza. Utzi sutan dena egosi arte. Pure leun bat egin irabiagailuarekin. Atera mahaira: Jarri kremaren gainean gaztai-nak, onddoak, perrexila, piperrautsa eta olio zurrusta bat.

Iturria: www.baztan.eus
<http://elosoconbotas.wordpress.com>

Funtsezko gai batek batzen gaitu: Giza eskubideen defentsak. Pertsona guztien eskubideak, salbuespenik gabe!



Giza eskubideak ezin direlako partzelatan bereizi; ezin dira batzuk defendatu, eta beste batzuk baztertu.

Aurrerantzean ere oihu isil edo zaratatsua botatzen jarraitu behar dugu, euskal presoen eskubideak urratzeari utzi behar zaiola aldarrikatzeko. Ozen entzun behar gaituzte denbora luzez aplikatu den eta pertsona askori hainbeste sufrimendu eragin dien salbuespeneko espetxe-politika bertan behera uzteko ahalmena duten instantzietan.

Egia da azken urte honetan aurrerapausoak eman direla beste espetxe-politika baten bidean. Herri honetako emakumeen eta gizonen ahaleginari esker, gure herriko gehiengo politiko eta sindikalaren babesarekin, aurrera egin dugu. Atzean geratu dira Levante, Andaluzia edo Galiziako espetxeak, Baina oraindik ehun preso inguru daude Espainiako espetxeetan, eta hogeit bat, Frantzian.

Gaztelako, Aragoiko, Kantabriako, Asturiaseko, Logroñoko edo Madrileko kartzelak hustu



behar ditugu, eta Iparraldeko kideek gauza bera egin behar dute Frantziako kartezelekin.

Ez dugu pribilegiarik eskatzen. Justizia eskatzen dugu, legeria arrunta, ezkutuko bizi osorako kartzela-zigorrek eragotziko dituen legeria, euskal presoek eskubide diren gradu-progresioa eta espetxeko baimenak ahalbidetuko dituen. honek preso horien heren bat baino gehiago etxean egotea ahalbidetuko luke.

Urriaren 1etik EAEko Administrazioak bere esku du espetxe politika humanista eta errepresiorik gabekoa garatzeko aukera. Bizikidetzaren berberaikitzeak aukera emango digun politika bat garatzea beharrezkoa da! Hori soilik gauzatu ahal izango da guztiok gai bagara konfrontazioa antzuak baztertzeko eta kartzeletako arazoari konponbide justu bat bilatzeko. Espetxe-politika berri hori garatuko dutenen aukera hori bada,


ondoan izango gaituzte, laguntzeko; baina, hala ez bada, hor jarraituko dugu bidezko bakea lortzeko, ausardia, justizia eta humanitatea behar direla gogorarazteko.

Helburu horretan, SAREren xedea ez da lehian sartzea arlo politikoaren jardunean. Badakigu zein den gure jardun-eremua, eta hor beti izango dute gure laguntza, helburu hori lortzeko.

Amaitzeko: Beharrezkoa dugu azken hilabeteetan lortu dugun adostasunari eustea. Horrek emango baitigu Madrilgo eta Parisko gobernuen

aurrean euskal gehiengo politiko sindikal eta sozialaren babesa erakustea, hor baitago gure helburuak lortzeko indarra.

Gure indarrak batzen jarraitzeko beharra presente izan behar dugu eta bide horretan gure indarrak batzen jarraitu behar dugu!!



ABENDUAK 10: Giza Eskubideen Eguna ABENDUAK 18: Pertsona Migratzaileen Eguna

